

GERARDO PESCADOR

ZERAMIKA ERAKUSKETA

Urtarrilaren 2tik 31era • 08:00-13:00

KULTUR ARETOA (DONIBANE KALEA 2)

Zamorako buztinlariekin harremanetan egon eta gero, bere kabuz hasten da zeramikaren munduan barnatzen 1980ean. 1992tik 1994era Palentziako Zeramika Azoka antolatzen du. 1999tik aurrera Palentziako Herri Unibertsitatean klaseak ematen ditu.

ERAKUSKETA KOLEKTIBOAK

Bartzelona, Madril, Zaragoza, A Coruña, Valladolid, Hondarribia, Donostia, Perpignan (Frantzia), Logroño, Burgos, Palentzia, Bilbo, Zarautz, Zamora, Soria, Girona, Salamanca, Segovia, Paris, Milsbeez (Holanda), Clermont Ferrand (Frantzia), Noisy-Le-Grand (Frantzia).

BAKARKAKO ERAKUSKETAK

Paris, Casablanca (Marroko), Errenteria, Hondarribia, Zaragoza, Donostia, Valladolid, Palentzia, Madril, Zarautz, Bilbo, Salamanca, Girona, Avilés, Aranda de Duero, Lezo, Gasteiz.


SARIAK

- | | |
|------|---|
| 1984 | 1. saria: Ciudad de Palencia, 2. saria: Ciudad de Salamanca. |
| 1985 | 2. saria: Nacional de Diseño (Industria Ministerioa). |
| 1987 | 1. saria: Ciudad de Avilés. |
| 1988 | 2. saria: Donostia Hiria. |
| 1991 | 1. saria: Zeramikan Diseinua (Castilla eta Leon). |
| 1993 | 2. saria: Ciudad de Segovia, 2. saria: Ciudad de Palencia. |
| 1994 | 1. saria: Diseño en Cerámica (Castilla y León). |
| 1996 | Zamorako Premio de Adquisición, 3. saria: Ciudad de Palencia. |
| 2001 | Aukeratutako lanen Ciudad de Valladolideko V. Zeramika Lehiaketa. |
| 2002 | 1. saria: Cerámica de Medina de Campo. |
| 2004 | Cerámica Ciudad de Palencia 1. sari nazionala. |

LAN AIPAGARRIENAK

- | | |
|------|--|
| 1992 | Castromocho elizaren (Palentzia, XVI. mendea) estalduraren zaharberritze lanak. |
| 1993 | Colegio Villandrandoko (Palentzia, 1907) Daniel Zuloagaren muralaren zaharberritzea. |
| 1996 | Leongo Calle Anchako etxaurre modernisten zaharberritzea. |
| 2000 | Granadako azulejo mudejarren zaharberritzea. |
| 2001 | Palentziako Carmen plazako iturrien estaldura. |
| 2001 | Palentziako jatetxe baten irekierarako triptiko bat. |
| 2002 | Palentziako jatetxe baterako triptiko bat. |
| 2003 | Palentziako Otero plazako musika tenplete baterako estaldura, 3500 teila borobilekin. |
| 2004 | Tamaina handiko muralak Palentzia, Burgos, Madril, Valladolid, Paris eta Bordeauxeko monumento arkitektoniko ezagunetan. |





zine ma 800




Lezoko Unibertsitateko
Udala

AUDITORIUMA

Gezala

URTARRILA - enero

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 4	22:00	LARGO DOMINGO DE NOVIASZGO
OSTEGUNA 11	22:00	BE COOL
LARUNBATA 13	16:30	BASERRIAN
OSTEGUNA 18	22:00	CHUNGKING EXPRESS
LARUNBATA 20	16:30	SHERLOCK HOLMES
OSTEGUNA 25	22:00	CRY BABY
LARUNBATA 27	16:30	HEIDI



KULTUR HOTSAK


GERARDO PESCADOR

2TIK 31ERA	08:00-13:00	ZERAMIKA ERAKUSKETA
------------	-------------	---------------------

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**

OSTEGUNA • jueves




LARGO DOMINGO DE NOVIAZGO

Mutil-laguna gerrara joatea behartu ondoren, han hil zela jakinarazten diote Mathilderi. Ez du sinisten ordea, bere senak oraindik bizirik dagoela esaten dio. Horraino istorio normala, kasik betikoa, baina pelikula berezi egiten duena Jeuneten sinadura da. Zuzendari honen aurreko pelikulak ezagutzen dituenak badaki zertaz ari garen: kolorea, detaileak, hizkuntza propioa...

Frantziako sari garrantzitsuenak diren Cesar Sarietan bost jaso zituen 2005. urtean.


2004, Frantzia 133 min. Jeunet, Jean-Pierre.
Audrey Tautou, Gaspard Ulliel, Dominique Pinon, Chantal Neuwirth.



BE COOL

Pelikula honetako bikote protagonistaren (Thurman-Travolta) kalitatea frogatua dagoela esan beharrik ere ez dago. Bi antzezle hauek parte hartu duten proiektu interesgarriena ez bada ere, pelikula arin eta publiko zabalarari zuzendutako honetan merezi du bien arteko norgehiagokak eskaintzen duenagatik soilik ikustera joatea. Istorioaren testuingurua musika-industria izaki, musika ugari entzuteko parada izango da komedia atsegin honetan. Ah! beste aurpegi ezagun asko ageri dira.


2005, EEBB. 118 min. Gary Gray, F. Uma Thurman, John Travolta, Vince Vaughn, Danny DeVito, Harvey Keitel, Steven Tyler.



CHUNGKING EXPRESS

Wong Kar Wairen zaletasuna areagotzeko aukerak eman ditugu Lezon *In The Mood For Love* eta *2046* pelikulak ikusteko aukera izan baita Gezala Auditoriumean. Edonola zuzendari berezi honen inguruan norbaitek sakontzen jarraitu nahi badu *Chunking Express* ikusi beharra dauka, asiar hau mende-baldean ezagutzera eragin zuena baita. *The Mamas and the Papas* taldearen guztiok ezagutzen dugun *California Dreamin'* kanta obsesiboa bilakatuko da. Pelikula ikusten baduzu beti joango da aipatu abestiarekin lotuta.

1990, Hong Kong. 102 min. Wong Kar Wai. Brigitte Lin, Tony Leung Chiu Wai, Faye Wong, Takeshi Kaneshiro, Valerie Chow.



CRY BABY

Hollywoodek gazteekin gazteentzako egindako pelikulen parodia bat da Cry Baby. 50. hamarkadako Estatu Batuetan kokatua, larruzko jaka eta tupea erabiltzen dituzten gazteak ditu protagonista. Wade "Malkoa" Walker institutuko mutilik gaiztoena da eta negarra malko soil batekin egiteko gai da. Allison erabat maitemindurik du eta erakarpen ikaragarria sentitzen du. Zinema independentearen ikonoa den John Watersen beste 'gaiztakeria' bat!

1990, EEBB. 85 min. Water, John. Johnny Deep, May Locane, Susan Tyrrell, Polly Bergen, Iggy Pop, Traci Lords.

Gezala
AUDITORIUMA

Lezo

LARUNBATA • sábado

EZ DAGO ZINE EMANALDIRIK



BASERRIAN

Abenturaz jositako bizitza duten pailazo talde honek oraingoan ere ez du hutsik egingo. Amona baserrian bizi dutenez, hiria utzi eta bisitan joango dira egun batzuk han pasa eta, bide batez, laguntzeko asmoarekin. Takolo, Pirritx eta Porrotx han dauden bitartean amerikar negozio gizon bat azalduko da baserria erosi nahian. Trikimailuak eta iruzurra erabiliko ditu salmenta burutu ahal izateko. Zer gertatuko da?


1999, EH. 90 min. Takolo, Pirritx eta Porrotx.



SHERLOCK HOLMES

Azkenean, munduko detektiberik ezagunenetarikoa eta berarengandik inoiz banatzen ez den laguntzaile fidela marrazki bizidunetan ikusteko aukera izango dute haur lezoarrak. Bai, Sherlock Homes eta Watson doktoreak XX. mende hasierako Londonen kasu ziragarriak argitu beharko dituzte. Hasieran zentzurik ez dutela diruditen kasuak logikoki eta arrazoia erabiliz argituko ditu Sherlockek. Akzioa, ustekabeko amaierak eta umore ezin hobeak... Une zoragarriak pasatzeko aukera hau ez pasatzen utzi!

2001, Japonia, Italia. 100 min. Hayao Miyazaki.
Marrazki bizidunak.



HEIDI

Bere ama hil ondoren osabak Heidi Alpeetan bizi den aitonaarekin bidaltzen du bizitzera, hari baitagokio umearen ardura. Amaren galera oso tristeia bada ere, Heidi haur oso alaia da eta bere bizileku berrian irribarreareta etengabe mantentzen lagunduko dion Peru laguna aurkituko du, baita bere ahuntz talde guztiaren artean bihotzeko txoko bat lapurtuko dion 'elur maluta' ere. Horretaz gain Lanbro zakurrekin une ahaztezinak igaroko ditu. Energia positiboa alde guztietatik!

1974, Japonia, Alemania. 65 min. Isao Takahata.
Marrazki bizidunak.

